

BAKEAREN ALDEKO



BASTEA

Kontau Bakea



ITAKA
ESCOLAPIOS
FUNDAZIOA

Aurkibide

Aurkezpena	2
Ahatetxo itsusia	3
Nadarín	4
Bakearen aldeko ipuina	6
Bakeari buruzko marrazkia	8
Zergatik dira beltzak beltz?	9
Eta egun batean bekea hasi zen	10
Mari errauskin	11
Elefanteak?	12
Erregearen hiru seme-alabak	13
Zergatik egiten du ohiu jendeak?	14
Txistu egiteari utzi zion sugea	15
Umiltasuna	16
Enperadorearen janzki berria	18
Zubiak eraikitzen	18
Pol eta Pepa adiskideak dira	20



TOLERANTZIA

Aurkezpena

Haurren hezkuntza-prozesuan, familiek eta ikastetxeek, beste hezkuntza-eragile batzuen artean, **eskura ditugun tresna guztiekin esku hartu behar dugu** bakearen kontzeptuaz gain, mundu bidezkoagoa eta bihozberagoa egiten lagun dezaketen ekintza guztiak ere barneratzeko.

Ipuinak dira hurrekin bakearen, duintasunaren, solidaritatearen eta giza eskubideen gaiak lantzeko dugun modurik errazena.

Familian eta ikastetxean ipuinak irakurriz bakerako heztea agian ez da eginbehar hain bitxia, baina bai oso aberasgarria.

Uste horretatik abiatuta, **ipuin-bilduma txiki bat egin dugu (14 ipuin), gure hurrekin istorio horietatik atera ditzakegun irakaspenen inguruan hitz egiteko galdera batzuekin.**

Ipuin kontalariaren metodoa gustuko baldin baduzue, eta bilduma hau labur geratuz gero, jakina denez, sarean hamaika ipuin agertzen dira:

Ipuin klasikoen web gunea:

<http://www.bibliotecasvirtuales.com/biblioteca/literaturainfantil/cuentosclasicos/index.asp>

Txikientzako ipuin laburrak, kolorez betetako gunea:

<http://www.es.geocities.com/cuentosdelahuerta/minicuentos.htm>

Haur eta gazte literaturari buruzko web gune bikaina, hezkuntza baloreetan lantzeko joerarekin:

<http://www.edualter.org/libroste.htm>

Peter Paz eta Nunca Jamaseko Gerrak:

<http://www.lacasadelpaz.org/noticias/eneroo4/3odenypo4.htm#foto>

Shreken ipuinetik abiatuta baloreen hezkuntza:

http://www.nodo50.org/tortuga/article.php3?id_article=438

...

Ahatetxo itsusia *(HANS CHRISTIAN ANDERSEN)*

- *Zergatik ahate-amak ez zuen inoiz “ahatetxo itsusia” baztertu? Ahate-amaren zein jarrerak erakusten digu batzuetan ahatetxo itsusia onartzea kostatzen zitzaiola? Zergatik?*
- *Zer gertatzen da oilategiko bileran? Zergatik zegoen halako zalaparta? Nola portatu ziren gehienak ahatetxo itsusiarekin? Gu noizbait horrela portatu al gara norbaitekin? Nola sentitzen zen ahatetxo itsusia? Nola sentituko ote dira ezberdinak izateagatik gizarteak baztertzen dituen pertsonak?*
- *Zergatik alde egin zuen ahatetxo itsusiak oilategitik?*
- *Zergatik ez zuten andere zaharraren katuak eta oiloak ahatetxo itsusia ulertzen? Noizbait sentitu al dugu norbaitek gu ez ulertzea?*
- *Zertaz jabetu zen ahatetxoa lakuaren islan? noizbait gutxi baloratu al gaituzte edo gure kabuz edo benetan maite gaituen norbaiti esker ohartu al gara sekula balio dugun guztiaz? Nork jakin zuen benetan gure ahatetxo itsusia baloratzen?*
- *Batzuetan ezberdinak diren edo besterik gabe ezagutzen ez ditugun pertsonak baztertzen ditugula uste al duzu? Pertsona horiek ezagutzen eta ulertzen saiatzen al gara?*

Nadarín *(LEO LEONNI)*

Arraintxo multzo zoriontsua bizi zen itsasoko edozein bazterretan. Guztiak gorriak ziren. Horietako bakarra zen muskuilu baten eskola bezain beltza. Bere anai-arrebek baino azkarrago egiten zuen igerian. Nadarin zuen izena.

Egun gaizto batean, atun bizkor, anker eta gosetu bat gezi baten antzera agertu zen olatuetan zehar. Kolpe batez, arraintxo gorri guztiak irentsi zituen. Nadarinek bakarrik egin zuen ihes.

Igeri egin zuen, mundu heze eta sakonean. Izututa zegoen, bakarrik eta oso triste.

Baina itsasoa izaki zoragarriz beteta zegoen, eta igerian zihuan bitartean, harriduraz harridura, Nadarin berriz ere zoriontsu izan zen. Gelatinazko ostadar-medusa bat ikusi zuen, errota baten antzera biraka zebilen otarraina, hari ikusezin batek arrastan zeramatzan arrain arraroak, azukrezko arroketan hazten zen algazko oihana... ia ahazteko adinako luzerako isatsa zuen aingira... eta itsas anemonak, karminezko palmondoen gisa, haizearekin kulunkatuz...

Orduan, arroken eta belarren itzalean ezkutatuta, arraintxo multzoa ikusi zuen, bere antzekoak zirenak.

“Zatoz, goazen igerian egitera, jolastera eta gauzak IKUSTERA!”, esan zuen, alai.

“Ezin dugu”, esan zuen arraintxo gorri batek. “Arrain handiak guztiok jan egingo gintuzke”.

“Baina ez da hor geratu behar beti”, esan zuen Nadarinek. “Zerbait pentsatu behar dugu”.

Nadarinek asko pentsatu zuen... orduan, bat-batean, hau esan zuen: “Badakit! Guztiok elkarren alboan egingo dugu igerian, itsasoko arrainik handienaren gisan.”

Elkarren ondo-ondoan igeri egiten irakatsi zien, bakoitza bere lekuan.
Eta arrain erraldoia izango balira bezala igeri egiten ikasi zutenean esan zuen:
“Ni begia izango naiz”.

Eta horrela egin zuten igerian goizeko ur freskotan eta eguerdiko eguzkitan,
arrain handia izutuz.

- *Zer gustatu zaizue ipuinetik?*
- *Zein arazo zuten arrainek?
Nola konpondu ahal izan zuten?
Zer egiten dugu guk arazoren bat dugunean?*
- *Gustatuko al litzazueke Nadarin bezalakoak izatea?*

Bakearen aldeko ipuinak

(LA SALLE- ALCORAKO 6. MAILAKO IKASLEAK)

Behin batean bazen gerran zegoen herrialde bat. Zerua ilun zegoen, lurra ilun zegoen, gerraren ondorioz dena ilundu zen, lurrean odola zegoen, gainerako guztiarekin kontrastean zegoen gorri kolore bizia zegoen lurrean.

Herrialde horretan haur bat bizi zen. Haur horrek ama eta anaiak baino ez zituen bizirik, aita aurkariaren aurka borrokan ari zela hil zen; eta orain, berak ezin zuen ikastetxera joan, gosea pasatzen zuen; izan ere, ez zegoen elikagairik eta bere ahizpa gaixorik zegoen eta ez zuten bera sendatzeko botikarik.

Gerraren aurretik nahi zuen guztia jaten zuen, ikastetxera joaten zen, lagunekin jolasten zuen eta gaixotzen zenean botikak izaten zituen haur horrentzat urdin ilun bihurtu zen guztia, ez, are eta ilunago, beltz bihurtu zen guztia, ilargirik eta izarrik gabeko gaua izango balitz bezala.

Egunak pasa ahala, gauzak orduan eta okerrago zeuden; ahizpa hiltzorian zegoen, elefante talde oso bat jateko moduko gosea zuen, eta gainera, ikastetxean ikasi zuen guztia ahazten ari zitzaion.

Pentsatzen hasi zen... Ikastetxean gerraz hitz egin zuten; hala eta guztiz ere, inoiz ez zuen pentsatu berari tokatuko zitzaionik, eurei laguntzeko inork ez zuela ezertxo ere egiten pentsatzen zuen, baina beste herrialdeetan jende askok hitz egiten zuen BAKEAZ, hitz bat baino zertxobait gehiago den horretaz, botikak, janaria, hezkuntza, poza... izatea esan nahi duen horretaz.

Jende horren guztiaren ahaleginarekin, azkenean, gerra amaitu egin zen. Laguntza izugarria jaso zuten, eta ez zuten gerraosterik jasan behar izan; pixkanaka-pixkanaka normaltasunera itzuli zen guztia.

Haurra ikastetxera joan zen berriro, botikei esker, ahizpa sendatu egin zen, eta orain, guztiek jan zezaketen.

Haur horrentzat, lehen guztia beltza zen hura ostadar kolorekoa bihurtu zen: urdina, berdea, horia... ZORAGARRIA ZEN GUZTIA.

- *Hori dela eta, gerra gehiagorik izan ez dadin, gaur, beltza, txarra den guztia zakarrontzira botako dugu: indarkeria, gezurra, gorrotoa eta abar. Eta mundua hitz polit, zuri hauekin inguratuko dugu, kolore biziz margotuko dugu mundua, gerrarik inoiz izan ez dadin, eta horrela, bakeaz eta maitasunez betetako mundua izan dezagun betirako.*
- *2 zutabe egin, horietako batean “ilunak” hitzak ipini, eta bestean, “argiak eta koloreak”. Gauza txarren zutabea moztu, eta zakarrontzira bota; gauza onen zutabearekin horma-irudiak egin ikastetxean, kalean, atarian... ipintzeko.*
- *Ipuin honetan zer da benetakoa?*



Bakeari buruzko marrazkia *(EGILE EZEZAGUNA)*

Bazen behin bakeari buruz marrazki onena irudikatzen zuenari saria emateko prest zegoen errege bat. Artista ugari saiatu ziren. Erregeak irudi guztiak behatu zituen, baina guztien artean soilik bi gustatu zitzaizkion eta horien arteko aukeraketa egin behar izan zuen.

Irudietako bat laku lasai bat zen. Inguruko mendiak islatzen eta nabarmentzen zituen ispilu ezin hobe a alegia. Horien gainean, hodei txuri lumatsuak zituen zerua zegoen. Irudia ikusi zuten guztiak bakeari buruzko margo ezin hobe a zela pentsatu zuten.

Gainerako irudiek ere mendiak zituzten, baina haiek malkartsuak eta gorriak ziren. Goialdean zeru ekaiztsua zuten eta bertatik euria eta tximista erortzen zen. Mendiaren hegalararen azpitik ur-jauzi apartua erortzen zen. Horrek ez zirudien batere baketsua.

Baina erregeak irudia ikusi zuenean, harkaitz baten arrakalan hazten ari zen zuhaixka txiki bat ikusi zuen ur-jauziaren atzean. Txori ama batek bere habia egina zuen zuhaixkan. Han, uraren indar kemenaren erdian, txori ama bere habian eserita... bake ezin hobe a.

- *Zein irudik uste duzu irabazi zuela saria?*
- *Erregeak bigarrena aukeratu zuen.
Ba al dakizu zergatik?*

Zergatik dira beltzak beltz?

Duela urte asko laku bat sortu zen bat-batean, denek bertan sartu nahi zuten...hain zen misteriotsua... baina ez zegoen denak batera sartzeko adina leku... beraz, jendetza hartatik lazki atera zen talde bat pasa zen lehenengo... Talde hori denbora aaasko egon zen barruan, besteengan pentsatu gabe, hainbeste denbora pasa zuten txuri gelditu zirela.

Hurrengo taldea sartu zenean ur gutxi gelditzen zen eta denbora gutxiago egon ziren, guztiz ez amaitzeko. Hortaz, horixka gelditu ziren.

Azkeneko taldeak ez zuen ia urik, baina hain misteriotsua zen laku haren aurrean, bertara gerturatu eta ezin izan zituzten esku-azpiak eta hanka-azpiak besterik busti.

- *Zergatik uste duzu azkenekoak azkeneko gelditu zirela?*
- *Antza denez lehenengo taldekoek zakarki “alderatu” zuten baten bat... Horrelako zein jarrera ikusi ohi dugu egun gure gizartean?*

Eta egun batean bakea hasi zen *(LITCHU)*

Fusilek tiro egiteari uko egin zioten. Tankeek ez zuten mugitu nahi izan. Hegazkinak ez zituztela bonba gehiago garraiatu nahi esan zuten.

Nazkatuta gaude gizonak eta emakumeak hiltzeaz!

Gudez nekatuta gaude!

Eta bat-batean balen eta bonben soinua amaitu zen eta txorien txorrotzioak eta mutiko eta neskatoen ahotsak entzun ahal izan ziren. Bataila-eremuak haurrentzako egundoko parkeetan bilakatu ziren. Milaka kolore ezberdinez margotutako tankeak txirristatan eraldatu ziren eta kanoi handietatik kulunkak zintzilikatzen ziren. Hegazkinak eskola, liburutegi, zinema... izan ziren.

Fusilei, erabilpen ezagatik, arrosa handiak hazi zitzaizkien kanoietan; kaskoak lorentzi gisa erabili ziren balkoiak atontzeko.

Pertsonak guda, etsai, gorroto... hitzak liburutetatik eta hiztegietatik urratu zituzten. Eskoletan **BAKEA**, **LAGUNA** eta **MAITASUNA** bezalako hitzak beti letra larrian idazten direla irakasten zuten.

- *Noizbait horrelako zerbaitekin amets egin al duzu?*
- *Mundu horrekin amesten duen haurrik badela uste al duzu? Nortzuk?*

Mari errauskin *(CHARLES PERRAULT)*

- *Nola imajinatzen dituzu Mari Errauskinen amaordea eta ahizpaordeak? Eta Mari Errauskin bera?*
- *Zergatik uste duzu agertu zitzaiola maitagarria? Bururatzen al zaizu maitagarria azaltzea gustatuko litzaizukeen beste pertsonarik? Zergatik? Maitagarriek bakarrik bete al ditzakete zure ametsak? Nork bestela? Guk bete al dezakegu behar duen norbaiten amets txikiren bat?*
- *Zergatik uste duzu jarri ziola maitagarriak Mari Errauskini baldintza? Maitagarriak irabazirik ateratzen al du baldintza horrekin? Normalean, mesederen bat egiten dugunean, trukean zerbait espero dugula dirudi, izan al daiteke maitagarriak bere mesedetan egin beharrean Mari Errauskin izatea buruan baldintza jartzeko garaian? Zergatik?*



Elefanteak?

(DAVID)

Duela denbora asko, munduko elefante guztiak beltzak edo zuriak ziren. Gainerako animaliak maite zituzten, baina elkar gorroto zuten, beraz, bi taldeak elkarrengandik bananduta ibiltzen ziren: beltzak oihanaren alde batean bizi ziren eta zuriak kontrako aldean. Egun batean, elefante beltzek elefante zuri guztiak hil behar zituztela erabaki zuten eta elefante zuriek, berriz, elefante beltz guztiak hil behar zituztela. Bakea nahi zuten bi taldeetako elefanteak oihanean barneratu ziren. Eta ez ziren berriro agertu.

Hasi zen borroka. Eta asko iraun zuen, luze jo zuen. Elefante bakar bat ere bizirik geratu ez zen arte. Urtetan, ez zen elefanterik ikusi munduan.

Egun batean, elefante bakezaleen bilobak oihanetik atera ziren arte iraun zuen egoera hark. Grisak ziren. Ordutik, elefanteak bakean bizi izan dira. Baina azkenaldian, belarri txikiak dituzten elefanteek eta belarri handikoek elkarri modu arraroz eta kezagarritz begiratzen diote.

- *Zergatik obsesionatzen dira elkarren arteko berezitasunak bilatzen, guztiak elefante izanik, partekatzen dutenagatik elkar maitatu beharrean?*
- *Antzeko zerbait gertatzen zaigula uste al duzu?*

Erregearen hiru seme-alabak

(EGILE EZEZAGUNA)

Bazen behin errege bat bi seme eta alaba bat zituena. Aberastasun handiak zituen, gainera. Batez ere balio paregabeko brillante bat, mundu osoak miresten zuena. Norentzat izango zen brillante hura herentzia banatzean? Aitak proba bat jarri zien seme-alabei. Egun seinalatuan balentria handiena egiten zuenari emango zion...

Gauean, bakoitzak eguneko ekintzak kontatu zituen. Alabak, zaharrenak, erresuma osoan izua eragiten zuen dragoia hil zuen.

Bigarren semeak, daga txiki batekin hamar gizon armatu garaitu zituen.

Hirugarren semeak hau esan zuen: - Gaur goizean atera naiz eta nire etsairik handiena topatu dut labar baten ertzean lotan... eta lotan jarrai zezan utzi dut.

Orduan, erregea tronutik altxatu, seme gazteena besarkatu eta brillantea eman zion.

- *Zergatik egin zuen hori erregeak?*
- *Zer da gaur egun balentria handia egitea? Zergatik?*

Zergatik egiten du oihu jendeak? (EGILE EZEZAGUNA)



Egun batez Meher Babak bere mandalaei galdetu zien: Zergatik egiten du oihu jendeak haserretzean?:

Gizonek pixka batean pentsatu zuen:

Patxada galtzen dugulako -esan zuen batek- horregatik egiten dugu oihu.-

Baina zergatik egin oihu bestea zure alboan dagoenean? – galdetu zuen Babak – Ezin al zaio oihu egin gabe hitz egin? Zergatik egiten diozu oihu norbaiti haserre zaudenean?

Gizonek beste erantzunen bat ere eman zioten, baina ez zuten asebete Baba.

Azkenik, hau azaldu zuen:

Pertsonak haserre daudenean, bihotzak asko aldentzen dira. Baina distantzia hori betetzeko, oihu egin behar dute, elkar entzun ahal izateko. Zenbat eta haserreago egon, orduan eta ozenago egin beharko dute oihu elkar entzuteko distantzia handi horretan.

Gero Babak galdetu zuen: -Zer gertatzen da bi pertsona maitemintzen direnean?

Horiek ez dute oihu egiten, oso baxu hitz egiten dute, zergatik? Horien bihotzak oso gertu daudelako.

Bien arteko distantzia oso txikia da.

Babak jarraitu zuen: -Oraindik gehiago maitemintzen direnean, zer gertatzen da? Ez dute hitz egiten, xuxurlatu bakarrik egiten dute eta are gertuago daude maitasunean. Azkenik, ez dute xuxurlatu beharrik ere, begiratu besterik ez, eta hori da guztia. Hain gertu daude bi pertsonak elkar maite dutenean...

Gero Babak esan zuen:-

Eztabaida egiten duzueanean, ez utzi bihotzei urruntzen, ez esan gehiago urrunduko zaituzten hitzik, bestela noizbait iritsiko da distantzia horrek itzulerako biderik aurkituko ez duen eguna.

- *Norbaitekin eztabaidatzen dugunean eta oihu egiten dugunean, egia al da gure arteko distantzia handiagotu egiten dela dirudiela? Bestea urrunago sentitzen al dugu? Horregatik egiten ote dugu hainbeste oihu?*

Txistu egiteari utzi zion sugea

(EGILE EZEZAGUNA)

Suge batek herri bateko biztanle askori egin zion kosk; horren ondorioz, oso gutxi ausartzen ziren zelaian sartzera. Baina Maisuak sugea hezi zuela eta indarkeriarik ez erabiltzeko diziplina erabil zezala konbentzitu zuela zabaldu zen berria; halakoa zen Maisuaren santutasuna.

Handik gutxira, herriko biztanleek jakin zuten sugea ez zela kaltegarria. Beraz, harriak botatzen zizkieten eta isatsetik helduta alde batetik bestera arrastaka eramaten zuten.

Suge gaixoa, kolpatuta, gau batez Maisuaren etxeraino joan zen arrastaka, kexatzera. Maisuak hau esan zion: “Adiskidea, jendeak beldurra galdu dizu eta hori ez da ona”.

- *“Baina zuk irakatsi zenidan-eta biolentziarik ez erabiltzen!”*
- *“Nik min egiteari uzteko esan nizun, ez txistu egiteari”.*
- *Zer esan nahi dio maisuak sugeari ipuinaren azken esaldiarekin?*

Umiltasuna

(EGILE EZEZAGUNA)

Gertu zen nire urtebetetzea eta aurten desira berezia eskatu nahi nuen nire urtebetetze-tartako kandelak itzaltzean.

Parkean paseatzen ari nintzela, banku batean, urrutienekoan, eserita zegoen eskale baten ondoan eseri nintzen, urmaeletik gertu usoak jira biraka hegan zebiltzan usoei begira eta bitxia iruditu zitzaidan itxura utzia zuen gizona txoritxoei begira ikustea, aurpegian etengabea zirudien irribarrea jarrita.

Beregana gerturatu nintzen hain zoriontsu zergatik zegoen galdetzeko asmoz.

Nik ere zorte oneko sentitu nahi izan nuen berekin hitz eginda, nire ondasuneharroago sentitzeko; nik ez bainuen ezertxo ere falta, nire lana nuen, diru asko ematen zidana, noski, nola ez zidan ba diru asko emango hainbeste lan eginda?, seme-alabak nituen; nire esfortzuari esker horiei ere ez zitzaien ezer falta eta nahi zituzten jostailuak zituzten.

Lan-ordu etengabeei esker, ez zitzaion ezertxo ere falta nire familiari.

Orduan, gizonarengana gerturatu nintzen eta hau galdetu nion: jauna, zer eskatuko zenuke zuk zure urtebetetzeko desira gisa?

Uste nuen dirua nahi zuela erantzungo zidala; bide batez, nik nituen billete batzuk emango nizkion eta urteko karitatezko obra egingo nuen.

Ez dakizu zenbatekoa izan zen nire harridura gizonak ondorengoa erantzun zidanean, ezabatu ez zitzaion eta sekula ezabatu ez zitzaion irribarre berarekin:

-Adiskidea, dudana baino zerbait gehiago eskatuko banu oso egoista izango nintzateke, nik dagoeneko izan dut gizakiak bizitzan behar duena eta baita gehiago ere. Gurasoekin eta anaiarekin bizi nintzen ekaineko arratsalde batean galdu nituen arte, orain dela asko, amaren eta aitaren maitasuna ezagutu nuen, ahalegin guztia egiten zuten gure muga ekonomikoetan ahal zuten maitasun guztia emateko. Galdu nituenean asko sufritu nuen baina ulertu nuen beste batzuek ez zutela inoiz maitasun hori ezagutu eta nik bai, eta hobeto sentitu nintzen.

Gazte nintzenean, neskato bat ezagutu nuen eta guztiz maitemindu nintzen, egun batean musu eman nion eta maitasuna sortu zitzaidan gazte eder

harekiko. Gero, alde egin zuenean, nire bihotzak hainbeste sufritu zuen... Une hori gogoratzen dut eta pentsatzen dut badagoela jendea maitasun hori inoiz ezagutu ez duena eta hobeto sentitzen naiz.

Behin, parke honetan, haur bat lasterka zebilela, erori eta negarrez hasi zen. Zutitzen lagundu nion eta nire eskuekin bere malkoak lehortu ondoren, berarekin jolasean ibili nintzen pixka bat eta nire semea ez zen arren, haren aita nintzela sentitu eta zoriontsu izan nintzen, askok sentimendu hori ez dutela ezagutu ere egiten pentsatu bainuen.

Neguan hotza eta gosea izaten dudanean, amaren bazkariak eta gure etxe txikiko berotasunaz oroitzen naiz eta hobeto sentitzen naiz beste batzuk hori inoiz ez baitute sentitu ere egin eta agian inoiz ez baitute sentituko. Bi ogi pusketa lortzen ditudanean, bat beste eskalaren bati ematen diot, eta behar duenari eman izanaren plazerra sentitzen dut, eta batzuek hori ez dutela sentituko gogoratzen dut.

Adiskide maitea, zer gehiago eska diezaioket Jainkoari edo bizitzari, guztia izan ondoren, eta are garrantzitsuagoa da badakidala hala dela.

Bizitza adierazpen soilenean ikus dezaket; bi usotxo horiek jolasean, esaterako, zer behar dute horiek? nik bezainbeste, ezer ez... Zeruari eskerrak ematen dizkiogu horregatik eta badakit zuk ere laster emango dizkiozula.

Lurrera begiratu nuen une batez, soiltasunean begiak irekiarazi zizkidan jakintsu haren hitzen handitasunaren aurrean galduta; alhora begiratu nuenean, dagoeneko ez zegoen, usotxoak besterik ez zeuden eta damu izugarria nuen bizitza ezagutu gabe bizi izan nintzelako. Inoiz ez nuen usteko eskale hark, agian Jainkoak bidalitako aingeruren bat izango zenak, gizakiari eman dakioken oparirik preziatuena emango zidanik...

- *Helduak izatean noren antza izatea gustatuko litzaiguke?*
- *Pertsonaia bakoitzaren zein ezaugarri atsegin zaizkigu? Zergatik?*
- *Konturatzen al gara eta balioztatzen al duzu bizitzak egunero egiten dizkigun opari txiki bakoitza?*

Enperadorearen janzki berria

(HANS CHRISTIAN ANDERSEN)

- *Zergatik ez da inor egia esatera ausartzen? Zeren beldur dira?*
- *Zer lortzen dute benetan ikusten dutena esan gabe?*
- *Zergatik da zehazki haurra guztiek ikusten dutena oihukatzen duena? Zer izan ohi du haurrak, batzuetan helduek izaten ez dutena?*

Zubiak eraikitza

(EGILE EZEZAGUNA)



Duela gutxi, elkarren alboko etxaldeetan bizi ziren bi anai-arrebek gatazka izan zuten.

Elkarrekin etengabe uztak landatuz, ondasunak eta makinak elkartrukatuz eta elkarbanatuz, 40 urte pasatu zituzten eta hori izan zen lehenengo arazo larria.

Lankidetzaz luze eta mesedegarri hori bat-batean eten zen.

Gaizki ulertu baten ondorioz hasi zen eta asko hazi zen, elkar bereizi arte. Horren ondorioz, hitz garratzak esan zizkieten elkarri, eta aste batzuen ondoren, isiltasuna etorri zen.

Goiz batean, norbaitek atea jo zuen Luisen etxean. Ireki zuenean, arotzaren erremintak zituen gizon bat ikusi zuen. “Egun batzuetarako lan bila nabil”, esan zion arrotzak, “agian etxaldean konponketaren bat egin beharra izango duzu zuk eta nik lagun diezazuket”. “Bai”, esan zuen anaietan zaharrenak, “badut lantxo bat zuretzat. Begira ezazu etxalde hura, erreka bestaldera, hor bizi da nire bizilaguna, bueno, izatez nire anaia gaztea da.

Joan den astean gu bion artean zelai ederra zegoen, berak bere buldozerra hartu eta erreka ubidea desbideratu zuen bion artean jartzeko. Bueno, ni haserrarazteko egin zezakeen, baina nik zerbait hobea egingo diot.

Ikusten al duzu bihitegiaren alboan dagoen zur-hondakinen pila hori? Itxitura bat egin dezazun nahi dut, altueran mi metro izango dituen, “ez dut gehiago ikusi ere egin nahi”.

Arotzak hau esan zion: “uste dut ulertzen dudala zure egoera. Erakutsiezadazu non dauden iltzeak eta zutabeen zuloak egiteko pala eta pozik utziko zaituen lana egingo dizut”.

Anaia zaharrenak arotzari lagundu zion materiala biltzen eta herrira hornidura bila joateko etxaldetik atera zen egun osorako. Arotzak gogor lan egin zuen: neurtuz, moztuz eta iltzeak sartuz. Iluntze aldera, baserritara itzuli zenean, arotzak bere lana bukatu berri zuen.

Baserritarra guztiz harrিতa geratu zen: Ez zegoen inolako bi metroko itxiturarik. Horren ordez, zubi bat zegoen. Erreka gurutzatuz, bi etxaldeak elkartzen zituen zubia. Arte-lan fina zen, eskudel eta guzti.

Une horretan, bizilaguna, anaia gaztea, etxaldetik etorri zitzaion eta Luis besarkatuz hau esan zion: pertsona ona zara, esan eta egin dizudana egin ondoren, zubi eder hori eraikitzea ere!

Bi anaiak adiskidetzen ari ziren arotzak erremintak hartu eta bazihoala ikusi zutenean, “ez! Itxaron”, esan zion anaia zaharrenak. “Gera zaitez egun batzuez, proiektu asko dut zuretzako”. “Gustatuko litzaidake geratzea”, esan zuen arotzak, baina zubi ugari dut eraikitzeko.

- *Gure bi lagun haserretzen direnean, zer egin ohi dugu guk? ... saiatu oroitzen...*
- *zenbat aldiz eraiki ditugu “hormak” bien artean, lehen baino gehiago urrunaraziz? Eta zenbat aldiz saiatu gara “zubiak” eraikitzen eta adiskidetzeko bideak egiten eta arazoak konpontzen?*
- *Jarrera hori oso garrantzitsua da Bakearen alde lan egiteko... eta gutako bakoitzak... zeregin garrantzitsua dugu...*
- **IZAN GAITEZEN ZUBIGILE**, gure gertueneko arazoak konpontzeko lan egin dezagun.

Pol eta Pepa adiskideak dira (ZURBARAN HI)

Egunero, ikastetxetik ateratzean, Pepak badaki ama zain izango duela lorategiko atean. Amarengana korrika joan, besarkatu eta eskolan egin duen guztia azalduko dio. Baina arratsalde batean, Pepa eskolatik irten denean, inoiz baino bizkorrago doa lasterka amarengana.

Oso garrantzitsua den zerbait du hari esateko.

Ama! –esan dio Pepak oso urduri– nire ikasgelan gozokien koloreko haurrak daude.

Zer diozu? –barre egin dio amak.

Bai, benetan. Andereñoak Pol, nire lagunik onenak, txokolatzeko bonboiaren koloreko azala duela esaten du, eta Lin-Kaok, kopeta-iledun neskak, limoizko sorbetearen kolorea duela.

Bueno –esan dio amak berriro barrez–. Andereñoak esan nahi duena da herrialde eta arraza ugaritako haurrak daudela.

Zuk ulertzen duzu esan nahi dizudana, ezta, ama?

Noski –erantzun dio amak, Pepari musu emanaz.

Andereñoak jaia egiteko eta gustukoen dugun horrez mozorrotzeko esan digu –jarraitu du azaltzen Pepak.

Hurrengo egunean, Pepak Poli zertaz mozorrotzeko asmoa duen galdetu dio. Polek, une batez pentsatzen jarrita, ondorengoa erantzungo dio:

Robotez! Robotez mozorrotuko naiz, argi eta aparailu arraro eta guzti.

Bi lagunak barrez geratu dira mozorroa nolakoa izango den pentsatuz.

Eta zu? –galdetu dio Polek Pepari– Zertaz mozorrotuko zara?

Ez dizut esango –esan dio Pepak barrez eta gaizto aurpegia jarriz.

Horrek ez du balio –protesta egin dio Polek.

Eta horrela, eztabaidan, jarraitu dute.

Azkenean, iritsi da jaiaren eguna. Gurasoak seme-alabekin sartzen hasi dira.

Marcelo suhiltzailez mozorrotuta dago, Evelina oiloz, M. Elena panpinez...
Pepa oso barregarri dago euliz jantzita; ziur hark irabaziko duela.
Hartaz mozorrotuta dagoen mutiko bat ere badago, baina inork ez daki nor den; horren ondo eginda dagoen mozorroa du...

Jose Carlos, oso haur xaxatzailea, Pepaz barrez ari da.

A zer euli arraroa!

Pepa haserretu egin da.

- Ba zuk zeure burua ikusiko bazenu... –erantzun dio Pepak.

Jose Carlosek hau erantzun dio:

Gainera, zure lagun Polek ez du sartu nahi, ez duelako mozorrorik. Pepak aterantz begiratu eta han ikusi du bere laguna oso goibel, negarrez.

Pepa lasterka joan da harengana.

Zer gertatzen zaizu? Mozorrorik ez duzulako al da?

Polek baietz esan dio buruarekin. Orduan, Pepak bere euli-mozorro zoragarria erantzi, aurpegia marroiz margotu eta Polen anorak erraldoia jantzi du soinean. Polek aurpegia zuriz margotu eta Peparen beroki txiki arrosa jantzi du, nahiz eta ia sartu ez. Jarraian, biak eskutik helduta irten dira.

Oso arraro eta dibertigarri daude. Gainerako guztiak, biak ikustean, txaloka hasi dira.

Andereñoak isiltzeko eskatu die:

Ta, tatatxan, lehenengo saria.. puxiken poltsa... Pol eta Peparentzat, Pepaz eta Polez mozorrotuta baitaude.

Txalo, txalo txalo – guztiak txaloka hasi dira.

- Bigarren saria... gozokien saskia, horrenbeste jaten duen hartaz mozorrotuta dagoen eta nor den ez dakigun haur horrentzat da.

Haurra gerturatu, gozokiak hartu eta hau esan du:

- Gron, gron...

Jarraian, korrika alde egin du basorantz.

Zein arraroa! Nor ote da?

- *Gertatu al zaizu inoiz antzeko ezer?*
- *Pepa bazina, gauza bera egingo al zenuke zure lagunarengatik?*
- *Eta zure adiskidea ez de beste haur bati gertatuko balitzaio... gauza bera egingo al zenuke? Zergatik?*